

EDITORIALA



Irudia ~ Laborantza lurrak Kansas-en (CC).

Pertsonak jaten duguna garela entzun izan dugu sarri, baina gutxiagotan entzun izan dugu gu bizi gareneko auzo, herri, hiri eta lurraldeak ere, guk jaten duguna direla.

Azken hamarkadetan, gu bizi garen munduko punta honetan, lurra elikagaiak sortzeko izan beharrean bestelako erabilera batzuen euskarri izateko hautu nagusia egin da, eta elikagaien (eta bestelako gaien) hornikuntza bermatu beharrak eman die forma gure (eta besteen) lurraldeei: hemen, horien garraio, biltegiatze, banaketa, salmenta eta kontsumoa bermatuko duten espazio, baliabide eta egituren beharrak; lehengai horiek ekoizten dituzten tokietan, ekoizpen, erauzketa eta bestelako jarduerak.

Industriaurreko hiri eta herriguneetan elikagaien aztarnari jarraitzea posible zela dio Carolyn Steelek; gaur egun, ordea, beste logika batzuek diraute. Industrializazioaren ondorengo hiri eta herriek tokiko eta sasoiko elikagai-ekoizpenarekiko

independentzia posible zela sinetsarazi digute, herritarren horiekiko gertutasuna hautsiz.

Munduko biztanleria goraka doan honetan, elikagai-sistema moderno horien bideragarritasuna zalantzan dago, berak kontrolatu ezin ditzakeen kanpo-faktore batzuen menpe baitago: energia ugari eta merkearen eskuragarritasuna, lur- eta elikagai-ekoizpenen gaineko kontrola, espekulazioa...

Ikertzaile batzuek jada aurreratu dute «elikagaien gailurra» hurreratzen egon litekeela, elikagai-sistema globalizatuak bere biziraupenerako behar dituen baliabideen muga gertu izan dezakeelako, horrek ekar lezakeen «elikagai merke»en amaierarekin.

Zer egin? Steelek dioen moduan, Sitopia on bat beharko dugu. Esku artean duzuen ale honek bide horretan bere ekarpen xumea egiteko borondatea du. On egin.